

Garuneko hainbat asaldurak oinarri genetiko bera izan dezakete

Garuneko hainbat asalduraren korrelazio genetikoa aztertu du nazioarteko ikerketa-talde batek, milioi bat pertsona baino gehiagoren genomak alderatuta. Ondorioztatu dute asaldura psikiatriko askok aldaera genetiko berak dituztela, eta asaldura neurologikoak, berriz, desberdinagoak direla bai elkarrekin eta bai asaldura psikiatrikoekiko ere, oinarri genetikoari dagokionez.

Guztira 25 garun-asaldura aztertu dituzte, 265.218 gaixoren eta 784.643 pertsona osasuntsuren genomak alderatuta. Gaixotasun neurologikoetan, alzheimerra eta esklerosi anizkoitza kasu, ez dute ia korrelaziorik topatu. Asaldura psikiatrikoetan, aldiz, korrelazio asko ikusi dituzte. Nabarmenena anorexia mentalaren, nahasmendu obsesibo-kompulsiboaren eta eskizofreniaren artekoa izan da, eta,aldi berean, [eskizofreniak](#) aztertutako asaldura psikiatriko gehienekin lotura duela ikusi dute. Autismoa eta Touretteren sindromea, berriz, salbuespenak dira, ez baitute loturarik gainerako asaldura psikiatrikoekin. ●



Duela 14.000 urteko ogi-hondarrak aurkitu dituzte Jordanian

Duela 14.000 urte, gaur egun Jordania den eremuan, talo-itxurako ogia egiten zutela aurkitu dute Amaia Arranz Otaegui (Kopenhageko Unibertsitatea) eta kideek. Hala, ogia nekazaritzarekin batera sortu zela uste zen arren, aurkikuntza honek erakusten duenez, lehenagokoa da ogia; izan ere, aztarna hauek nekazaritza hasi baino 4.000 urte lehenagokoak dira.



Shubayqa aztarnategian, harrizko labe moduko batean aurkitu zituzten ogi-hondarrak. ARG.: Alexis Pantos.

Shubayqa aztarnategian, ehiztari-biltzaile natufiarraren aztarnategi batean, erretako elikagai-hondarrak aurkitu zituzten ikertzaileek, harrizko labe moduko batzuetan. Hondar horiek aztertuta ikusi dute taloen gisako egitura porotsua dutela, eta zekaleez eta bestelako sustrairen batzuez osatuta zeudela. Gainera, osagai horiek aurrez ehotuak izan zirela ere ondorioztatu ahal izan dute. ●



[Albiste gehiago webgunean](#)